

# BASERRIA

Bakar eta banan bizi izateko oiturea dabe euskaldunak. Orregaitik "baserria" da euskaldunen benetako etxea.

Ibar bateko baserriak auzo bat osotzen dabe. Eta auzook alkar laguntzeko lege batzuk dabez. Legeok auzo-lana eskatzen dabe: artazuriketa, gorulanak eta ibarreko bide eta zubiak alkarren artean egin bearra.

Orrezaz gaiñera, etxe bakoitzeko jai eta gora-berak be alkarregaz bizi ta ospatzen dabez: jaiotzak, ezteguak, illetak...

Zumarraga´ko lenengo etxea Eguzkitza izan ei zan; eta Iriaun, Bergara´koa. Bi edo iru orduko bidea dago baserri bion artean.

Alan ta guztiz be, Iriaun´go etxeko jaunak esan ei eban:

—Urrintxo, urrintxo alkarregandik, auzoak ondo izateko.

Dorre-etxeak ziran baserri bi oneik. Bardin dagoz beste Euskalerriko dorre-etxeak be, esakun orrek diñoanez, alkarregandik urrintxo.

Oillar bakarra bear, antza, oillategi bakoitzean.

*Irakurlea: Iratxe Bernedo, Ikaslea, Eskoriatzan*